

Lean metodologiari buruzko jardunaldia

2014/01/16

Jaione Ganzarain eta Nekane Errastik, biak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikokoak, urtarrilaren 17an, ostirala, hitzaldia emango dute Debegesaren egoitzan (Azitain Poligonoa). Hitzaldia 9:00etan hasi eta 11:00etan amaituko da.

Hitzaldiaren helburua Mondragon Unibertsitateak Debabarreneko Garapen Agentziarekin elkarlanean sustatu duen proiektu bat eskualdeko enpresei gerturatzea da. Aipatu proiektuak ikaskuntza prozesu batean laguntzen die enpresa txiki eta ertainei, merkatu liderren/sektore estrategikoen arloetan Dibertsifikazio Agenda bat konfiguratzeko helburuarekin, enpresak, unibertsitateak eta erakundeek parte hartzen duten ikaskuntza prozesu baten bitartez, zeinean enpresak gogoeta egin, behatu eta bere aukerak diseinatzeko dituen. Horrez gain, beste proiektu batzuk ere erabiltzen dira, teknologietan prestatzeko, merkatuan trebatzeko, produktua/zerbitzua, prozesua, merkatua eta antolamendua berritzeko eta prestakuntza garatzeko.



Lean metodologiari buruzko jardunaldia